2026

# Iraila - Septiembre
# Urria - Octubre

Ikastaroa Curso

Dantza Danza

Erakusketa Exposición

Musika Música

Antzerkia Teatro

Magia

Hitzaldia Charla

Zinema Cine

Ipuin-Kontalaria Cuentacuentos

Lehiaketa Certamen



Atarrabia-Villava

Kultura agendaAgenda cultural

casa de cultura de villava
atarrabiako kultur etxea

## Oharrak

- Sarrerak ez dira aldatuko. Ikuskizuna bertan behera uzten bada bakarrik itzuliko da sarreren zenbatekoa.
- Puntualtasuna guztiz funtsezkoa da. Inor ez da Antzokian sartuko, behin emanaldia hasita.
- Sakelako telefonoak itzali beharko dira areto barnera sartu baino lehen.
- Ez da zilegi argazkiak egitea, filmatzea eta grabatzea.
- Haur eta familiendako ikuskizunetan, 10 urtetik beheko haurrak heldu batekin sartu beharko dira.
- Ez da zilegi aretoan janaria eta edariak sartzea.
- Kultur Etxeko langileek arauok eta Ikuskizun publikoen araudia betearazteko baimena dute.
- Indarrean den araudia betetze aldera, nahitaezkoa da pertsona guztiek beren sarrera izatea, baita heldu baten besoetan doazen umeek ere.

## Notas de aviso

- Las entradas no se cambiarán. La suspensión del espectáculo será la única causa para la devolución del importe de las entradas.
- Máxima puntualidad. No se podrá acceder al Teatro una vez iniciada la función.
- Los móviles deberán desconectarse antes de acceder al interior de la sala.
- Prohibido sacar fotos, filmar y grabar.
- En los espectáculos infantiles y familiares, los menores de 10 años deben ir acompañados de una persona adulta.
- No se permite acceder a la sala con alimentos ni bebidas.
- El personal de la Casa de Cultura está autorizado para hacer cumplir estas normas y la normativa de Espectáculos públicos.
- En cumplimiento de la normativa vigente, es obligatorio que todas las personas dispongan de su propia entrada, incluidos los bebés que vayan en brazos de una persona adulta.

## Sarreren salmenta

- Leihatilan, astelehenetik ostiralera, 16:00etatik 21:00etara, eta sarrerarik gelditzen bada, ikuskizuna hasi baino ordu erdi lehenago.
- Interneten: www.atarrabia.es / www.villava.es

## Venta de entradas

- En taquilla de lunes a viernes, de 16 a 21 horas y media hora antes del comienzo del espectáculo, si quedasen localidades.
- En internet: www.atarrabia.es / www.villava.es

ESKATU AURIKULARRA EDO BEGIZTA MAGNETIKOA ATEZAINDEGIAN

SOLICITA EL AURICULAR O EL BUCLE MAGNÉTICO EN CONSERJERÍA

www.facebook.com/Casa-de-Cultura-Villava

L.G.: NA 1978-2018
D.L.: NA 1978-2018

Doako banaketa
Difusión gratuita

IKASTAROA
CURSO

HERRI MUSIKA MODERNOA
MÚSICA POPULAR MODERNA

## “Rockaren eta poparen ibilbidea. Ikus-entzunezko ibilaldia” / “La ruta del rock y el pop. Un recorrido audiovisual”

JAVIER EGILUZ LEKUNBERRI

URRIA / OCTUBRE
**21**
-
MAIATZA / MAYO
**19**

***ASTEAZKENETAN***
***LOS MIÉRCOLES***

19:30 - 21:00

Kultur Etxea
Casa de Cultura

91 €

**Emailea / Imparte**
Javier Egiluz Lekunberri

**Izen ematea / Inscripción**
Irailaren 30era arte, Kultur Etxean / Hasta el 30 de septiembre en la Casa de Cultura

Ikus-entzunezko ibilaldi bat da herri musika modernoaren ildo eta estiloetan barna, 800 kanturen bidez. Honatx ikastaroaren helburuak: rockaren, poparen, haien azpigeneroen eta joeren bilakaera ezagutzea; zergatik izan diren arrakastatsuak jakitea, bai eta atalik nabarmenenak ezagutzea ere; horrekin batera, protagonisten bizitzak eta diskoak, bai eta grabazioetako bitxikeriak, pasadizoak eta kontzeptu teknikoren bat edo beste ere. Ikastaroan goitik behera ekarriko dira gogora rock eta pop musikaren urrezko hamarkadetako abesti, artista eta bandarik ospetsuenak.




Recorrido audiovisual por las corrientes y estilos de la música popular moderna a través de 800 canciones.
Los objetivos del curso son: conocer la evolución del rock, el pop, sus subgéneros y tendencias; descubrir las claves de sus éxitos y sus episodios más relevantes; las biografías y discografías de sus protagonistas, así como los entresijos de sus grabaciones, anécdotas y algún que otro concepto técnico. El curso ofrece un completo repaso por las canciones, artistas y bandas más representativas de las décadas doradas del rock y la música pop.

IRAILA / SEPTIEMBRE
Igandea / Domingo
**20**

HERRI DANTZAK
DANZAS POPULARES

# Iruñerria Dantzabira

## Udaletxeko plazan

**12:30:**
Ikuskizuna Larratz Dantzari Taldearen eskutik (Burlata)

**13:15:**
Topadantza, herri dantzen saioa jende guztiari irekia

## Plaza Consistorial

**12:30**
Espectáculo a cargo del grupo Larratz Dantzari Taldea (Burlada)

**13:15:**
Topadantza, sesión de danzas populares abierta al público

Iruñerria Dantzabira dantza tradizionaleko ekimena da, Nafarroako Dantzarien Biltzarrak sustatua, eta Iruñerriko bost herritan egiten dena (Barañain, Berriozar, Burlata, Noain eta Atarrabia). Herri bakoitzean dantza talde bat aritzen da (aurten, Atarrabian Noaingo Ardantzeta Dantza Taldea), eta ondoren, Topadantzan izeneko saioa egiten da, nahi duen orok gure dantzak dantzatzeko aukera izan dezan, musika zuzenean.




Iruñerria Dantzabira es un programa de danza tradicional promovido por Nafarroako Dantzarien Biltzarra que se desarrolla en cinco localidades de la comarca de Pamplona (Barañáin, Berriozar, Burlada, Noáin y Villava). Consta de una actuación en cada localidad de un grupo de danzas de otra de las participantes (este año en Villava Larratz Dantzari Taldea de Burlada), seguida de una Topadantza, una oportunidad de bailar nuestras dantzas de forma popular con música en vivo.

ERAKUSKETA
EXPOSICIÓN

ARGAZKIA
FOTOGRAFÍA

# “Esperientziak” / “Experiencias”

FOTO 67-M ARGAZKI TAILERRA
TALLER FOTOGRÁFICO FOTO 67-M

Argazkia ez da soilik kameran grabatua gelditzen den esperientzia, baita bakoitzaren erretinan bertan eta gure enteleguan gelditzen dena ere, horrek gauzak beste modu batez ikusarazten eta balorarazten baitigu. Bizi dugunari argazkia atera eta hori besteen begietara eramaten dugu, irudi soil bat baino gehiago partekatuta, hau da, haren atzean dagoen guztia. Hori lortzen dugun edo ez, zuen begiradaren baitan dago.

EGILEAK: *Javier Bengoetxea, Jesús Calvo, Yanira Calvo, Rubén Domínguez, Uxue Etxebeste, Patxi Flórez, Marian Inda, Pilar Izquierdo, Alejandro Liberal, Mercedes Pascual, Fernando Plá, Nieves Recalde, Judit Zudaire.*



La fotografía no es solo la experiencia que queda grabada en la cámara, sino también la que queda en la propia retina y en nuestro intelecto y que nos hace ver y valorar las cosas de otro modo. Fotografiamos lo vivido y lo trasladamos a los ojos de los demás compartiendo no solo una imagen, sino todo lo que hay detrás de ella. Que lo logremos solo depende ya de vuestra mirada.

AUTORES y AUTORAS: *Javier Bengoetxea, Jesús Calvo, Yanira Calvo, Rubén Domínguez, Uxue Etxebeste, Patxi Flórez, Marian Inda, Pilar Izquierdo, Alejandro Liberal, Mercedes Pascual, Fernando Plá, Nieves Recalde, Judit Zudaire.*

IRAILA / SEPTIEMBRE
**24**
-
AZAROA / NOVIEMBRE
**01**

Kultur Etxeko erakusketa gela

Sala de exposiciones Casa de Cultura

**Ordutegia**
Astelehenetik ostiralera, 18:00etatik 21:00etara eta urriaren 25ean eta azaroaren 1ean (igandeak)19:00etatik 20:00etara
**Sarrera** Dohainik

**Horario**
Lunes a viernes, de 18:00 a 21:00 y domingos 25 de octubre y 1 de noviembre de 19:00 a 20:00
**Entrada** Gratuita

IRAILA / SEPTIEMBRE
Igandea / Domingo
**27**

13:00

Udaletxeko plazan
Plaza Consistorial

**Zuzendaria / Dirección**
Txuma Gallego Laya

BANDAKO MUSIKA
MUSICA DE BANDA

## BURLATAKO MUSIKA BANDA / BANDA DE MÚSICA DE BURLADA

1968an sorturik, gaur egun 54 kide ditu. Errepertorio zabala eta askotarikoa jotzen du. 18 - 21 emanaldi egin ohi ditu Burlatan urte osoan, haietako batzuk herriko beste kultur talde batzuekin lankidetzan. Halaber, maiz aritzen da Nafarroako, EAEko, Errioxako, Valentziako eta Frantziako hainbat lekutan.



Nació en1968 y está formada en la actualidad por 54 miembros. Su repertorio es amplio y muy variado. Durante el año realiza entre 18 y 21 actuaciones en Burlada, en algunas de ellas con la colaboración de otros grupos culturales de la localidad. También se prodiga en distintos lugares de Navarra, La Rioja, Navarra, La Rioja, CAV, Comunidad Valenciana y Francia.

IRAILA / SEPTIEMBRE
Asteartea / Martes
**29**

DANTZA GARAIKIDEA
DANZA CONTEMPORÁNEA

# “3 Historias de dos”

iXA KONPAINIA / COMPAÑÍA iXA

Dantza garaikideko hiru pieza laburreko programa da (15 minutu), aurreko proiektuetatik aterata. “3 historias de dos” izenburupean bildurik, iXA taldeak bikote moldean dantzatuko du “Pioneras”. Lehen piezak emakumezkotasunaren erreferente toxikoak jorratzen ditu gizateriaren historian zehar. “Ollos cara adentro” pieza, berriz, amets egitearen egintzan barneratzen da, XX. mendearen hasierako artista surrealisten ikuspegitik begiratuta. Eta “Con/Sin/In-TACTO”k, azkenik, bi pertsonaren arteko istorio afektiboa ekarriko digu, harremanaren hasieratik amaitzen den arte. Ikuskizuna gazteendako eta helduendako da.



Programa de tres piezas cortas (15 minutos) de danza contemporánea extraídas de proyectos anteriores. Reunidas bajo el título “3 historias de dos”, iXA bailará en formato dúo “Pioneras”, obra que aborda los referentes tóxicos de lo femenino a lo largo de la historia de la humanidad; “Ollos cara adentro,” que se adentra en el acto de soñar desde la visión de los artistas surrealistas de principios del siglo XX; y “Con/Sin/In-TACTO”, que nos acerca la historia afectiva de dos personas desde su inicio hasta el final de su relación. Espectáculo dirigido a público joven y adulto.

18:30

Ribed parkea, Kultur Etxearen parean
(euria egiten badu, antzokian) /

Parque Ribed, frente a la Casa de Cultura
(en caso de lluvia, en el teatro)

Doan / Libre

45 min

**Interpreteak / Intérpretes**
Xián Martínez, Paula Urquijo, Elena Castellanos
**Público / Público**
gazteak, helduak / jóvenes, adultos

URRIA / OCTUBRE
Ostirala / Viernes
**02**

20:30

Kultur Etxetik abiaturik
(ibilbidea: karrika Nagusia eta Miguel Indurain plaza)

Salida desde la Casa de Cultura
(recorrido calle Mayor y plaza Miguel Indurain)

55 min

PIROTEKNIA ETA PERKUSIOA
PIROTECNIA Y PERCUSIÓN

## "Su Talka"

DEABRU BELTZAK

Deabru Beltzak taldearen azken ikuskizunak perkusioaren eta suaren arteko talka ekartzen du gogora, bai eta entzuteko eta sentitzeko beharra ere. Ikuskizun harrigarria da zinez, ikusleekiko topaketa eta elkarreragina sustatuta. Agerpen ikusgarriaren ondoren, perkusionistek ikusleengana jotzen dute zuzenean, haiengandik hurbil danborrak jo eta dardarazteko. Danborrek txinpartak sortzen dituzte eta, horrekin batera, noranahi zabaltzen den beroa, bai eta kolorez, erritmoz eta suz betetako zurrunbilo handi bat ere.



El último espectáculo de Deabru Beltzak evoca el choque de la percusión y el fuego, la necesidad de escuchar y sentir. Un espectáculo sorprendente que propicia el encuentro y la interacción con el público. Después de una espectacular aparición, los percusionistas salen al encuentro de los y las espectadoras y hacen vibrar sus tambores cerca de ellos y ellas. Los tambores producen chispas, un calor que se transmite, un gran torbellino de colores, ritmos y fuego.

BALIOAK
VALORES

# "Los Moonsters"

URRIA / OCTUBRE
Igandea / Domingo
**04**

17:30

Antzokia
Teatro

6 €

75 min

**6/7 urtetik gorako publiko familiarra / Público familiar a partir de 6/7 años**

Moonsters lagun taldea gure eguzki-sistemako hainbat lekutatik etorriak dira eta rock talde bat osatzeko elkartu dira. Istripu batek eraginda, Lurrera iritsi eta hemen harrapaturik gelditu dira. Etxera itzultzen saiatzen diren bitartean, haien kantuak gozagarri izanen zaizkigu. Kantuek esaten digute garrantzitsua dela hizkuntzak ikastea, musika jakitea eta, pertsonen larruazala edo sinesmen erlijiosoak direla-eta, jendea ez gutxiestea.



Los Moonsters son un grupo de amigos provenientes de diferentes puntos de nuestro sistema solar que se reúnen para formar un grupo de música rock. A causa de un accidente son transportados a la Tierra, donde quedan atrapados. Mientras intentan regresar a su hogar, entre aventura y aventura, nos hacen disfrutar con sus canciones, que hablan de la importancia de aprender idiomas, saber música o evitar menospreciar a las personas por su piel o sus creencias religiosas.

URRIA / OCTUBRE
Larunbata / Sábado
**10**

17:30

Antzokia
Teatro

5 €

60 min

**Zuzendaria / Dirección**
Xabier Artieda
**Interpreteak / Intérpretes**
Garazi San Martín, Xabier Artieda

**5 urtetik gorako publiko familiarra / Público familiar a partir de 5 años**

CLOWN FAMILIARRA
CLOWN FAMILIAR

## “Mythistoria”

EUSKARAZ
EUSKERA

Ospe handiko bi idazlek -biek ere eleberri, ipuin eta olerki aunitz plazaratu dituztenek- beren ibilbideko erronkarik handienari egin behar diote aurre: orrialde zuriari. Hori tragedia! Inspirazioa galdu dute! Eta orain, zer? Publikoarengana jo dute, sormenean duten blokeoa gainditzen laguntzeko, laguntza jasotzeko. Agertokian gertatuko dena berria, errepikaezina eta inprobisatua izanen da. Baina istorio zoragarriak sorraraziko ditu, hain segur. Hain zuzen ere, idazle gaixo horiek behar dutena.




Un escritor y una escritora de renombre, con numerosas novelas, cuentos y poemas en su trayectoria, se enfrentan al mayor reto de sus carreras: la página en blanco. ¡Qué tragedia! ¡Han perdido la inspiración! ¿Y ahora qué? El público ha sido convocado para ayudarles a superar su bloqueo creativo, para *echarles un cable*. Lo que suceda sobre el escenario será inédito, irrepetible, improvisado. Pero seguro, dará lugar a historias inolvidables. Exactamente lo que necesitan estos pobres escritores.

MAGIA MURGILGARRIA
MAGIA INMERSIVA

***LAU SAIO***
***CUATRO SESIONES***

# “3 elementu” / “3 Elementos”

MAGO HODEI

***EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ***
***EUSKERA y CASTELLANO***

Hodei magoak “3 elementu” saioa emanen digu, hots, esperientzia magiko murgilgarria da, publikoa ilusionistaren inguru osoan dagoela. Hiru elementuok sormena, ikusmina eta grina dira, hiruekin ere jaiotzen gara, baina hazi ahala galtzen ditugu. Proposamen honetan, ilusionismoak ikusleen irudimena, fantasia eta harrimena piztuko ditu, oroitzapen eta bizipen partekaturako tarte bat irekita. Saioak 40 minutu iraunen du eta ikusleak eserita egonen dira aulkietan, agertoki gainean (gehienez, 40 lagun saio bakoitzeko).

**MAGIA SARI NAZIONALA 2025**

**PREMIO NACIONAL DE MAGIA 2025**



El mago Hodei nos presentará “3 elementos”, una experiencia mágica inmersiva con el público rodeando completamente al ilusionista. Esos tres elementos son la creatividad, la curiosidad y la pasión, tres facultades con las que nacemos, pero que vamos perdiendo conforme crecemos y aprendemos. En esta propuesta, el ilusionismo despertará la imaginación, la fantasía y la capacidad de asombro del público, abriendo un espacio de memoria y experiencia compartida. En la función, de 40 minutos, el público estará sentado en sillas sobre el escenario (máximo 40 personas por pase).

URRIA / OCTUBRE
Larunbata / Sábado
**17**

17:00: 7 urtetik gorako publiko familiarra, gaztelaniaz / público familiar a partir de 7 años, castellano
18:00: 7 urtetik gorako publiko familiarra, euskaraz / público familiar a partir de 7 años, euskera
19:00: helduak, gaztelaniaz / público adulto, castellano
20:00: helduak, euskaraz / público adulto, euskera

Antzokia
Teatro

5 €

40 min

**Testugilea eta Zuzendaritza / Autoría del texto y Dirección**
Odei Domingo
**Interpreteak / Intérpretes**
Odei Domingo (Mago Hodei), Imanol Celigüeta (errejidorea / regidor)

URRIA / OCTUBRE
Asteartea / Martes
**20**

19:00

13. aretoa
Sala 13

Sarrera librea
Entrada libre

IKUSKIZUN ESZENIFIKATUAK
ESPECTÁCULOS ESCENIFICADOS

# Operen aurkezpena / Presentación de las óperas: “Katiuska” (Pablo Sorozábal eta / y “Lucia di Lammermoor” (Donizzetti)

AGAO (GAYARRE OPERAREN ADISKIDEEN ELKARTEA / ASOCIACIÓN GAYARRE AMIGOS DE LA ÓPERA)

AGAOk denboraldi berrian landuko dituen bi ikuskizun eszenifikatuak aurkeztuko ditu: “Katiuska. La mujer rusa” opereta, Pablo Sorozabalek ondua (azaroak 20 eta 21, Gayarre Antzokia) eta “Lucia di Lammermoor” opera, Donizzettik sortua (urtarrilak 29 eta 31, Baluarte).



AGAO presentará los dos espectáculos escenificados que abordará esta nueva temporada: la opereta “Katiuska. La mujer rusa”, de Pablo Sorozábal (20 y 21 de noviembre, Teatro Gayarre) y la ópera “Lucia di Lammermoor, de Donizzetti (29 y 31 de enero, Baluarte).

ZINE-FORUMA EMAKUMEA
CINE-FÓRUM MUJER

# "Calladita"

MIGUEL FAUS

URRIA / OCTUBRE
Asteazkena / Miércoles
**21**

19:00

Antzokia
Teatro

Sarrera librea
Entrada libre

86 min

**Urtea** / **Año** 2023
**Zuzendaritza** / **Dirección** Miguel Faus
**Nazionalitatea** / **Nacionalidad** Espainia / España

Ana Kolonbiatik iritsi berri da. Arte-merkataritzan diharduen familia dirudun baten udako luxuzko etxe batean ari da lanean. Uda bukaeran baldintza duinak lortzeko itxaropenean bizi da, betiere zuhurra eta isila bada. Giselaren bidez, ordea, Ana ohartuko da gauzek ez dutela funtzionatzen kontatu dioten bezalaxe, eta pixka bat gehiago dibertitzen ikasiko du Costa Bravan emanen duen udaldian.

*María Castejónek koordinatua, Historian doktorea, idazlea eta blogaria. Aditua genero-irudikapenetan, ikus-entzunezkoetan.*



Ana acaba de llegar de Colombia. Trabaja como interna en una lujosa mansión en la que veranea una adinerada familia de marchantes de arte. Vive con la esperanza de conseguir condiciones dignas al final del verano, siempre y cuando sea discreta y calladita. Pero a través de Gisela, la empleada de la casa vecina, Ana descubrirá que las cosas no funcionan exactamente como le han contado, y aprenderá a divertirse un poco más durante su verano en la Costa Brava.

*Coordinado por María Castejón, doctora en Historia, escritora y bloggera. Especialista en representaciones de género en los medios audiovisuales.*

URRIA / OCTUBRE
Ostirala / Viernes
**23**

19:00

Antzokia
Teatro

Sarrera librea

Entrada libre

**Elkarrizketatuak / Personas entrevistadas**
Soko Arrasate, Puri Sorbet, Maxi Olóriz, Fernando Garatea, Víctor Uriz Indurain, Pello Gurbindo

OROIMENA
MEMORIA

# “Atarrabia bere bizilagunen oroimenean” / “Villava en la memoria de sus vecinas y vecinos”

Atarrabia 2014an sartu zen NUPek sustaturiko “Nafarroako ahozko ondare eta ondare immaterialaren artxiboa” izeneko proiektuan. Proiektuaren xedea da jendea elkarrizketatuz Nafarroako ondare immateriala biltzea (jendearen bizitzari buruzko istorioak biltzeko), betiere ikus-entzunezko formatuan, Nafarroako ahozko ondareari nahiz ondare immaterialari buruzko artxibo multimedia, soinuduna, ikusentzunezkoa eta testuduna sortzeko.



Villava se incorporó en 2014 al proyecto “Archivo del patrimonio oral e inmaterial navarro”, promovido por la UPNA. La finalidad de este proyecto es recopilar el patrimonio inmaterial de Navarra mediante la realización de entrevistas (historias de vida), en formato audiovisual, para crear un Archivo multimedia, sonoro, audiovisual y textual del patrimonio oral e inmaterial de Navarra.

ESTREINALDIA
ESTRENO

KANTATA
CANTATA

EUSKARAZ
EUSKERA

# "Mitoen oihartzunak kantata"

URRIA / OCTUBRE
Larunbata / Sábado
Igandea / Domingo
**24, 25**

"Mitoen oihartzunak kantata" gure mitologiari buruzko euskal kantata berria da, Iñigo Casalik korurako, orkestrarako eta laukote bakarlarirako konposatua eta Julio Soto bertsolariak idatzia. 14 atalek pertsonaia mitologikoak dituzte ardatz, hala nola Lamiak, Basajaun, Sorginak, Atarrabi, Galtzagorriak eta Mari.



**Parte-hartzaileak:**
Atarrabia Abesbatza, Iruñeko Hiria Orkestra, laukote bakarlari bat: Marta Huarte (sopranoa), Julen Jiménez (tenorra), Leticia Vergara (mezzosopranoa) eta Sabino Pérez de Ziriza (baritonoa); Itziar Pérez de Ziriza pianista; Igor Martínez txistulari eta albokaria. Iñigo Casalí da konpositorea eta musika-zuzendaria, eta Julio Sotoa, letragilea.

**Participantes**
Coral Atarrabia Abesbatza, Orquesta Ciudad de Pamplona, un cuarteto solista integrado por Marta Huarte (soprano), Julen Jiménez (tenor), Leticia Vergara (mezzosoprano) y Sabino Pérez de Ziriza (barítono); la pianista Itziar Pérez de Ziriza; y el Txistulari y albokari Igor Martínez. Iñigo Casalí es el compositor y director musical, y Julio Soto, el autor de la letra.

"Mitoen oihartzunak kantata" es una kantata en euskera de nueva creación sobre nuestra mitología compuesta para coro, orquesta y cuarteto solista por Iñigo Casalí, y escrita por el bertsolari Julio Soto. Sus 14 números están protagonizados por personajes mitológicos como Lamiak, Basajaun, Sorginak, Atarrabi, Galtzagorriak o Mari.

HIRU SAIO
TRES PASES

Larunbata / Sábado: 19:30

Igandea / Domingo: 12:00, 19:30

Antzokia
Teatro

10 €

Sarreren salmenta mezenas ez direnendako: urriaren 1etik (osteguna) aitzina / Venta de entradas para no mecenas: desde el jueves 1 de octubre

mecna

EGIN ZAITEZ MEZENAS! / ¡HAZTE MECENAS!
info+: cultura@villava.es

## IPUIN-KONTALARIAK
## CUENTACUENTOS

18:00

Kultur Etxeko
8. gela
Sala 8 de la Casa
de Cultura

Dohainik
gonbidapena saioa hasi baino 10 minutu lehenago hartu behar da

Entrada libre
previa recogida de invitación 10 minutos antes de la función

**Publikoa** / **Público**
4 urtetik aurrera
A partir de 4 años

AZAROA / NOVIEMBRE
Asteazkena / Miércoles
**28**

**GAZTELANIAZ**
**CASTELLANO**

### "Tengo miedo. Y qué?!"
AINTZANE BALEZTENA



AZAROA / NOVIEMBRE
Osteguna / Jueves
**29**

**EUSKARAZ**
**EUSKERA**

### "Harri baten azpian bidea egina"
BIRJIÑE ALBIRA



ZINEA
CINE

# "Ombuaren Itzala La sombra del Ombú"

PATXI BISQUERT / EGUZKI ART ZINEMA

Pello Mari Otaño poeta eta bertsolariak zerbitzu militarra egin nahi ez zuelako egin zuen ihes lehendabizikoz Argentinara. 33 urte zituela, gaixotu eta Gipuzkoara itzuli zen. Madalen Alberdi ezagutu, harekin ezkondu eta Donostian finkatu ziren. Hainbat literatur lehiaketatan parte hartu eta bere konposizio poetikoengatik nabarmendu zen. Ezin zuenez bere familia mantendu eta jarrera politikoa zela eta (liberal errepublikano eta foruzalea), Argentinara itzuli zen azken aldiz emaztearekin eta hiru seme-alabekin batera.

*Aurkezpena eta filmaren ondoko solasaldia Patxi Bisquert zuzendariarekin.*



El poeta y bertsolari Pello Mari Otaño huyó por primera vez a Argentina para evitar ser llamado a filas. Al caer enfermo con 33 años regresa a Gipuzkoa. Conoce a Madalen Alberdi, se casa con ella y forma un hogar en San Sebastián. Participa en diversos certámenes literarios donde destaca por sus composiciones poéticas. Incapaz de mantener a su familia y marcado por su posicionamiento político, liberal republicano y fuerista, regresa a Argentina junto a su mujer y tres hijos.

*Presentación y coloquio posterior con el director, Patxi Bisquert.*

URRIA / OCTUBRE
Osteguna / Jueves
**29**

19:00

Antzokia
Teatro

Sarrera librea
Entrada libre

113 min

**Urtea** / **Año** 2025
**Zuzendaritza** / **Dirección**
Patxi Bisquert

Filma Argentinako, Gipuzkoako eta Nafarroako mendibazterretan filmatu zen 2024an, hiru hizkuntzatan, pertsonaien arabera: euskaraz, gaztelaniaz eta galegoz. Bertsioa gaztelaniaz dago azpidatzia / Película rodada en escenarios naturales de Argentina, Gipuzkoa y Navarra en 2024 en tres idiomas en función de los personajes: euskera, castellano y gallego. Versión subtitulada al castellano.

URRIA / OCTUBRE
Ostirala / Viernes
**30**

20:00

Antzokia
Teatro

5 €

POP, ROCK

# Geminiss

Olaia Bloom Las Culebras (2003-2013) eta The Mani-las (2017) taldeetan izan da sortzaile eta gitarrista. Orain, bere bakarkako proiektua aurkeztuko digu, Geminiss izenarekin. Konpositore eta letragilea, 2014az geroztik abestiak argitaratu ditu formatu digitalean, beste talde batzuetan ere jotzen zuen bitartean. 2025ean, bere lehen LPa plazaratu zuen: “Sueños, ideas y recuerdos”.







Olaia Bloom, quien fuera fundadora y guitarrista en Las Culebras (2003-2013) y The Mani-las (2017-), presenta ahora su proyecto en solitario bajo el nombre de Geminiss. Compositora y letrista, desde el año 2014 ha venido publicando en formato digital canciones, que compaginaba con su trabajo en otras bandas. En el año 2025 editó su primer LP, “Sueños, ideas y recuerdos”.

ARGAZKIA/
FOTOGRAFÍA

# “Besta Jira XXXI. argazki lehiaketa” / “XXXI Certamen de fotografía Besta Jira”



“Orígenes”. Rubén Raúl López Segura (Lehen saria, koloretan, 2025 / Primer premio color 2025).

**Modalitateak (4):** zuri-beltzean, koloretan, herriko gaia eta **Atarrabiako jaiak 2026**
**Parte-hartzaileen adina:** 16 urtetik aurrera
**Gaia:** librea, zuri-beltz eta kolore modalitateetarako
**Baldintzak:** lan originalak, argitaragabeak eta ez sarituak
**Lan kopurua:** bi lan gehienez modalitate eta egile bakoitzeko
**Sariak:** bi sari (300 eta 150 €) zuri-beltzean eta koloretan. Hiru sari (300, 200 eta 150 euro) herriko gaia eta Atarrabiako jaiak 2026 modalitateetan
**Aurkezpen epea:** urriak 14, asteartea, azaroak 6, ostirala (21:00etan)
**Aurkezpen lekua:** Kultur Etxea (karrika Nagusia 38 PK 31610)
**Oinarri guztiak:** www.villava.es

**Modalidades (4):** blanco/negro, color, tema local y **fiestas de Villava 2026**
**Edad participantes:** a partir de 16 años
**Tema:** libre para las modalidades de blanco/negro y color
**Condiciones:** obras originales, inéditas y no premiadas
**Número de obras:** un máximo de dos obras por modalidad y autor/a
**Premios:** dos premios (300 y 150 €) en las modalidades blanco/negro y color. Tres premios (300, 200 y 150 euros) en las modalidades tema local y fiestas Villava 2026
**Plazo entrega:** del martes 14 de octubre al viernes 6 de noviembre (a las 21:00)
**Lugar entrega:** Casa de Cultura (calle Mayor 38 CP 31610)
**Bases completas:** www.villava.es

www.villava.es

## Iraila / Septiembre

| A L | A M | A M | O J | O V | L S | I D |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 |
| 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 |
| 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 |
| 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 |
| 28 | 29 | 30 | | | | |

**20** Dantza / Danza ***Iruñerria Dantzabira*** Larratz Dantzari Taldea (Burlata / Burlada)

**24 Iraila / Septiembre - 01 Azaroa / Noviembre** Erakusketa / Exposición ***"Esperientziak" / Experiencias*** Foto 67-M Argazki Tailerra / Taller Fotográfico Foto 67-M

**27** Musika / Música Burlatako Musika Banda / Banda de Música de Burlada

**29** Dantza / Danza ***3 Historias de dos*** iXA Konpainia / Compañía iXA

## Urria / Octubre

| A L | A M | A M | O J | O V | L S | I D |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | 1 | 2 | 3 | 4 |
| 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 |
| 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 |
| 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 |
| 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | 31 | |

**02** Kale ikuskizuna / Espectáculo de calle ***Su Talka*** Deabru Beltzak

**04** Musika / Música ***Los Moonsters***

**10** Clown Familiarra / Clown familiar ***Mythistoria*** Xabier Artieda

**17** Magia ***3 Elementu / 3 Elementos*** Mago Hodei magoa

**20** Hitzaldia / Charla ***Operen aurkezpena / Presentación de las óperas: "Katiuska" (Pablo Sorozábal eta / y "Lucia di Lammermoor" (Donizzetti)*** AGAO (Gayarre Operaren Adiskideen Elkartea / Asociación Gayarre Amigos de la Ópera)

**21** Zine-foruma Emakumea / Cine fórum Mujer ***Calladita*** Miguel Faus

**23** Ikus-entzunezkoa / Audiovisual ***Atarrabia bere bizilagunen oroimenean / Villava en la memoria de sus vecinas y vecinos***

**24, 25** Musika / Música ***Mitoen oihartzunak kantata***

**28** Ipuin-kontalaria / Cuentacuentos ***Tengo miedo. Y qué?!*** Aintzane Baleztena

**29** Ipuin-kontalaria / Cuentacuentos ***Harri baten azpian bidea egina*** Birjiñe Albira

**29** Zinea / Cine ***Ombuaren Itzala / La sombra del Ombú*** Patxi Bisquert / Eguzki Art Zinema

**30** Musika / Música ***Geminiss***

ANTOLATZAILEA / ORGANIZA

casa de cultura de villava
atarrabiako kultur etxea

ELKARTUTAKO GUNEA / ESPACIO ASOCIADO

NAFARROAKO ANTZOKI SAREA
RED DE TEATROS DE NAVARRA

LAGUNTZAILEA / COLABORA

Nafarroako Gobernua